

Ezarpen egutegia. Zein da jarduera bakoitzeko egutegi zehatza?

TicketBai betebeharra honako epigrafe hauetan bildutako jarduerak egiten dituzten zergadunei eskatuko zaie, honako ezarpen-egutegi honen arabera:

a) 2022ko uztailaren 1ean hauek egongo dira behartuta:

- Zerga-arloko kudeaketa-zerbitzuak ohikotasunez egiten dituztenak, azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduaren 9. artikulua aipatzen du.

b) 2022ko irailaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak:

- 1. sekzioan, 834 eta 849 talde bitartekoak.

- 2. sekzioan, 011 eta 841 talde bitartekoak.

c) 2022ko azaroaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak:

- 1. sekzioan, 641 eta 665 talde bitartekoak eta 671 eta 687 talde bitartekoak.

- 2. sekzioan, 851 eta 899 talde bitartekoak.

d) 2023ko apirilaren 1ean, epigrafe hauetako jarduerak egiten dituztenak:

- 1. sekzioan, 501 eta 508 talde bitartekoak; 691. eta 757. talde bitartekoak; 833. taldea; eta 851. eta 999. talde bitartekoak.

e) 2023ko ekainaren 1ean:

- Mendeko nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- eta arrantza-jarduerak, bai eta zergaren tarifetan zehaztu gabeko gainerako enpresa-jarduerak, jarduera profesionalak edo artistikoak eta epigrafe hauetan jasotako jarduerak ere:

- 1. sekzioan, 011 eta 495. talde bitartekoak; 611. eta 631. talde bitartekoak; eta 761. eta 832. talde bitartekoak.

- 3. sekzioan, 011. eta 059 talde bitartekoak.